

NORA GOAZ?

Ariketa bera zerotik hasi baino, eztabaidari ekiteko baliagarriak izan daitezkeen hipotesiak mahaigaineratuko ditugu. Hipotesia hauek elkarlotuta daude, irudi orokor bat eman nahi baitugu, baina, une berean, bakoitzak atal edo ikuspegi zabal bati egiten dio erreferentzia, hipotesia horiek hainbat ildotarako pistak emanen dizkigutelakoan baikaude. Horregatik, hipotesiak banan banan formulatuko baditugu ere, eztabaida termino orokorretan ere egitea da gure asmoa.



ZIBILIZAZIO KRISIA

Prospekzioan zibilizazioa krisiaren dimentsioa azpimarratu nahi dugu, batez ere, gauden unearen ezaugarri nagusiez jabetzeko. Gertaera eta joera horien zioa ulertzeko erroetara joatea ezinbestekoa da: sistema patriarkala eta kapitalista nagusi da munduan. Pandemia, klima larrialdia, krisi ekosoziala, zaintza krisia, energia lehiak, ekoizpen kate globalak, krisi ekonomikoak,

erregaien agorpena, krisi demografikoa, autoritarismoa, erreakzio patriarkala, eskuin muturraren gorakada, ezkerren desorientazioa... Ezagutzen dugun eredu sozial, politiko, ekonomiko eta kulturala bere burua eraldatzen ari da. Erabat baldintzatuko du honek etorkizuneko abagunea.

1.- PLANETAREN MUGA BIO-SOZIALEKIN TALKA EGIN DUGU

Zibilizazio krisi honetan, mendebaldearen garapen eredu amaigabeak talka egin du planetaren muga bio-sozialekin. Naomi Kleinek idatzi duenez: honek dena aldatzen du! Klima larrialdi, krisi energetiko, bioaniztasunaren galera, uraren pribatizazioa, lehengaien lapurtzea, oligopolio handien urteroko irabaziak handitzea, bizitzaren garestitzea, energia eta elikagaien prezio igoera... Hego globalak eta eremu zaugarriek bizi dituzte ondorio latzenak.

Ereduaren eraldaketan, trantsizio ekologikoa martxan dago baina bere gainerako, interes ekono-

miko eta geopolitikoak oso bestelakoak dira.

Euskal Herria ere zibilizazio krisiak zeharkatzen du eta zeharkatuko du, ezagutzen dugun gure herriaren antolaketa sozial, politiko eta ekonomikoa eraldatuko du honek eta erronka berriak mahai gaineratuko dizkigu: Nolako irudikatzen dugu hipotesi honetan gure herria 10 urteren buruan? Zeintzuk dira joerak? Zeintzuk balia ditzakegu eraldaketarako?



2.- MUNDUKO POTENTZIEN ARTEKO LEHIA BERROSATZEN ARI DA

Testuinguru honetan, munduko potentzia nagusien arteko lehia berrosatzen hasi da, askapen eta zapalkuntzaren arteko lehiaren gaineratik, tamalez. Munduko zentro ekonomikoa ekialderantz mugitzen ari da eta harreman geopolitikoak aldatzen ari dira. Mundu poloanitz batera goaz, baina lehia ibilbidea ez da gozoa izanen, ez behintzat geoestrategikoki Europako eskualdean kokatuta gaudenontzat, guretzat.

Egungo botere nagusiek edozer egiteko hautua hartu dutelako, nagusitasuna ez galtzeko.

Egoera honetan ez da agertzen kapitalismoaren aurreko alternatiba orokor bideragarriarik, hamaika saio eta esperientzia indartzen ari badira ere, askapenaren espazioak krisia estrategiko larrian daudelako, orohar.



3.- MUNDUAREN BIZKORTZEA, MERKANTILIZAZIOA, DIGITALIZAZIOA ETA ADIMEN ARTIFIZIALA

Mundua bizkortzen ari da. Bizkortze iraunkorra neoliberalismoaren ezaugarri nagusietako bat da. Azelerazioak adierazten du, batetik, sistema etengabeko hazkunde eta zabalpenan oinarritzen dela, eta, bestetik, dena merkantilizatzekeo obsesioa, negozio aukera berrien bila denbora bera negoziobidea bilakatu eta ekonomia etenik gabeko gurrupila delarik.

Teknologia mailan atzematen da era berezian bizkortze hau, jendartean eta bizipen indibidual zein kolektiboetan eragin erraldoia duena: komunikazioan, ekonomian, inteligentzia artifizialean, hizkuntzan, kulturean, ...

Bizkortze hau ez da neutroa, nagusitzen diren botereen interes eta ikuspegi arabera baizik. Hau ez da munduaren bilakaera naturala, bizitza kolektiboa zein indibidualetan ondorio kezagarriak dituen prozesu elikatua baizik.

4.- EGITURA EKONOMIKOAREN GAINEKO LEHIA ETA DESPAREKOTASUN SOZIALAK

Kapitalismoaren bazterketa eta ezberdintasunak ekoizteko gaitasunaren garapenak, krisia klimatiko-zibilizazionalak, zaintza krisia eta haren ondorio diren zaintza kate globalak, lehia geopolitiko-ekonomikoen.... Horiek guztiek tentsioa erraldoiak elikatuko dituzte, jendartearen sektore asko pobrezia eramanen dituzte eta milioika pertsonen migrazioa behartuko dute.

Europa industriarik gabe, demografikoki zahartuta eta gizartearen bazterketa eta desperekotasuna maila handiekin aurre egin beharko dio etorkizunari.

Haren burua berrasmatzeko ahalegina etengabekoa izango da eta lehia horretan murgilduko da, atzera eta aurrera.

Testuinguru horretan eraman behar du aurrera Euskal Herriak bere askapen ibilbidea, jakinik gero eta herri anitzagoa izanen garela eta horrek kudeaketa erronka handiak ekarriko dizkigula, beste batzuek egoera baliatuko baitute agenda atzerakoia bideratzeko.



5.- TAUPADA ERREAKZIONARIO OROKORRAK

Kapitalismo neoliberalak gero eta erreakzio eta egoneza zabal eta sakonagoa pizten du, nabarmena delarik atxekimen ilusionatuak lortzeko gaitasuna galdu duela, nahiz eta marko gisa nagusitu. Alternatiba sistemiko baten faltan, kapitalismoa mutatzen ari da eta etor daitekeena oso kezagarria da, belizismoa, autoritarismoa, errepliege patriarkal, eurozentriko eta arrazista atzerakoia, fragmentazioa eta gorrotoa nagusitzen ari direlako mundu hobe baten itxaropenaren gainetik.

Alternatiba argien ezak monstruo garaia bilakatu dezake gurea. Esaten ahal dugu ideologia kontserbadoreak, zapuzketa, beldurra, mesfidantza eta politikarekiko desatxekimena direla gure garaiko emozio politiko nagusiak. Afera ez da soilik eskuin muturra deitzen duguna, arazoa askoz ere sakonagoa da eta emantzipazioaren esparruetan ere badago arriskua, joera atzerakoia orokorra izanik, hamaika forma ezberdin hartzen dituelako. Erremina nagusitzen da eta, egitasmo askatzaileez lotzen ez den heinean mundu makurrago baterako erregaia bilakatzen ari da.

Akats handia izanen litzateke sinestea eremu ezkertiar-askatzaileak inmunizatuta daudenik olatu eta taupada atzerakoi hauen aurrean. Taupada horiek eragiletza kolektiboa jartzen dute kolokan gaur egun. Politikaren trollizazioak hori bilatzen du, eztabaidaren ordez lehia krudela jarritz, zeinean ez baitago jardura kolektibo eraldatzaileak inspiratzen duten sintesirik eraikitzerik.



6.- ESTATUAREN ITZULERA

Estatua itzultzen ari da, besteak beste, inoiz ez delako joan. COVIDaz nabarmendu zenez, estatuaren edo sektore publikoaren berformulazioak jarraitzen du: pribatizazio -desdemokratizazio edo demokratizazioa. Egun, estatuak antolaketa sozial, politiko eta ekonomikoan eragiteko tresna gisa agertzen dira, neoliberalismoak azken hamarkadetan egin duen merkatu askearen errelatotik urruti.

Estatalitatea eraldaketa materialerako ezinbesteko oinarria da noski, publikoa den hori demokratizatzen bultzatzen bada behintzat. Baina, errealitatea beste bat da, ezagutu dugun ongizate estatua pribatizatzen ari dira, gutxi batzuen interes ekonomikoen mesedetan. Estatuaren itzulerak, beraz, lehia handia eragingo du.

Globalizazioa eta lokalizazioa izango dira joera zibilizazio krisi testuinguruan. Burujabetzaren inguruko gatazkak areagotuko dira baina, ez beti eraldaketa terminoetan. Edonola, aukera izan liteke ere prozesu soberanistak aurrera eramateko.

Hipotesia aukeratu eta saioan izena emateko egin [klik hemen](#)